



EKINTZA UGARI DITU **OARGIK** AZARORAKO

Mendi Hamabostaldia antolatzen ari dira; merkatu txikia, argazki lehiaketa eta hitzaldiak izango dira, besteak beste >4

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-10-31

VII. URTEA 1.815. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



JOXEMI SAIZAR

PAUL STANHOPE SIDNEY GANBARA ABESBATZAREN ZUZENDARIA

«Tolosara etortzea aukera ona da, asko aberasten gaituen esperientzia»

TOLOSA Aurtengo Abesbatza Lehiaketako berrikuntza da Sidneyko abesbatza; gaur ariko dira Lehiaketako azken saioan 2-3

Euskarazko bakarrizketa lehiaketa antolatu dute

VILLABONA Udalak antolatu du ekimena euskarazko bakarrizketa sustatu eta Euskal Herri osoan aurkezteko lan multzoa osatzeko asmoz 6

Erremonte profesionalaren 100. urteurrena dela eta, jaialdi berezia izango da

KIROLA Eskualdeko Garikoitz Altunak eta Patxi Zeberioi hartuko dute parte 7

Uraren gaia landuz ekin diote ikasturteari Eskola Agenda 21aren barruan

INGURUMENA Hainbat ikasle eta irakasle izan dira Ingurumen Eskolan 4

Bengoetxea eta Martinez Irujoren arteko lehia bihar

LEITZA Lau t'erdiko final-laurdeneko partida jokatuko dute Astelena pilotalekuan 5

denda



eskura ezazu...


HITZAren poltsa!

harpidedunak 19€, besteak 24€



HITZAren produktuak salgai

Tolosako HITZAren egoitzan salgai



Gure baserritik, haragia zuzenean etxera



5 Kg-ko sorta 58€tan (banaketa DOAN)
Xerrak (hiru mota), haragi xehea, saiheskia, zankarra, gisatua, txuleta.

Proba ezazu, egin eskaria:

943-30 43 32 (ordutegia: 9:00-17:00) edo saski@lurlan.org
Dendak: Bulevard 7 eta San Martin merkatuko C4 postuan (Donostia)



E Elkarrizketa

PAUL STANHOPE › Sidney Ganbara Abesbatzaren zuzendaria

«Tolosara etortzeak aberasten gaitu»

Kultura › Gaur, 41. Abesbatza Lehiaketako azken saioan, hartuko du parte aurtengo berrikuntzak: Sidney Ganbara Abesbatza.

JOXEMI SAIZAR

Abesbatza musika «freskotasunez eta edertasunez» interpretatzen dutela iragartzen du Australiatik Tolosako Lehiaketara datorren lehen abesbatzak, Sidneyko Ganbara Abesbatzak. Errenazimendu garaiko musikan espezializatu zen hasieran, batez ere Josquin des Prezen erreperitorioa, baina Barrokoa eta gaur egungo musika ere egiten dute. Paul Stanhope zuzendariaren hitzak jaso ditugu Lehiaketan parte hartu baino egun batzuk lehenago, kontzertu baten aurretik, biran zehar alojatuta dauden Zarautzeko hotolean.

Nola izan da zuen parte hartzeko aukera?

Tolosako Lehiaketak gonbidatu gintuen eta dirua aurrezten aritu ginen biren bidez. Eta antolaketa ere laguntza eman digu etorri ahal izateko.

Beste urteetan ere saiatu omen ziren, baina orain arte antolatzaileek ezin izan dute lortu.

Disponibilitate arazo bat izan zen, partaide guztiak Tolosara etorri ahal izateko aukerarik ez zutelako, denek bizitza oso okupatua dutelako Sidney. Baina aurtengo posible izan da.

Abesbatza aurkez ezazu: partaideak, beraien formazioa, musika estiloa...

Bira honetara 23 kide etorri gara, baina Sidneyn abesten dugunean 32 izatera iristen gara. Musika formazioa anitza da. Batzuk profesionalak dira abesbatzetan edo musika karrera bakarka egiten dute, batzuk musika irakasten dute... Talde anitza da eta egiten dugun musika gure gustuen arabera doa. Errenazimenduko garaiko musika gustatzen zaigu eta garaikidea ere bai, batez ere gure herrialdekoa.

Talde berria da, gaztea.

34 urte ditu taldeak, 1975ean sortu zen. Adinaren aldetik anitza da, gazteenak 22 urte ditu eta beste batzuk helduagoak dira. Taldekide batzuk 20 urte daramate abesbatza kantatzen.

Australiatik datorren lehen abesbatza da Tolosako Lehiaketan. Aurtengo berrikuntza zarete.

Zein da abesbatzen egoera zuen herrialdean?

Herrialde gaztea da Australia, bere nortasuna eraikitzen ari dena oraindik. Horregatik ez daude Europan adina koru. Bizpahiru helduen abesbatza on daude Sidney, eta Australia osoan zortzi bat talde. Gazteen beste bizpahiru abesbatza on daude, Tolosakoa bezalako lehiaketa batean parte hartzeko modukoak. Talde afizionatu asko daude, nahiz eta hori bultzatzen duten erakunde eta jaialdi asko ez izan. Nazio mailako kompetiziorik ez dago Australian. Horregatik Tolosara etortzea aukera ona da, asko aberasten gaituen esperientzia.

Tolosako Lehiaketaren zein erreferentzia zenuen?

Gonbidapena bidali ziguten antolatzaileek eta lehiaketa honetaz zerbait ikertu genuen. Beste urteetan parte hartu duten Londoneko abesbatza batzuetako zuzendariekin harremanetan jarri ginen eta denek erreferentzia oso onak eman zizkiguten.

Nola prestatu duzue Lehiaketa?

Programako abestiak urte osoan aritu gara entseatzeko, baita eskal kantak ere. Sidneyn eskaini ditugu eta beste abesti batzuk ere prestatu ditugu hemengo kontzertuetan eskaintzeko. Urte osoan aritu gara hau prestatzen, nahiz eta beste kontzertu mota batzuk ere prestatu urtean zehar.

Euskal kantei buruz, zer duzue esateko?

Lehen zailtasuna Australian euskaraz zekien norbait bilatzea izan da. Ahoskatze arazoak genituen. CD batekin praktikatzeko aritu ginen.

Euskal musikarekin ondo pasatu duzue, dibertitu gara, ohituta geundenaz desberdina da, folkagoa.

En. Euskal musikarekin ondo pasatu duzue, dibertitu gara, ohituta geundenarekin konparatuta desberdina da, folkagoa, baina ondo dago eta orain buruz abestu dezakegu, partiturari begiratu gabe.



JOXEMI SAIZAR

Duela urte batzuk Tolosako Hodeiertz abesbatza izan zen Sidneyn, Munduko Abesbatzen Symposiumean parte hartzen. Ezagutzen al zenituen euskal abesbatzak?

Ez dut gogoratzen, agian 1996koan izango zen, duela urte asko. Talde asko izan ziren eta ez nekien Tolosako abesbatza bat han izan zenik. 2000tik naiz abesbatzaren zuzendaria. Baina, berriz joaten badira saiatuko naiz entzuten.

Euskal obrez aparte, nolako erreperitorioa aukeratu duzue Lehiaketan abesteko?

Obra batzuk Espainiako Errenazimendukoak dira, eta beste batzuk konposatzaile australiarrenak, oso erritmikoak eta kartsuak, gero musika herrikoia prestatu dugu, Afrikakoa. Eta beste obra batzuk folklorekoak dira, australiarrek, alaiagoak...

Beste lehiakideak ezagutzen al dituzte?

Ez, zuzenean ez. Informazioa bilatu dugu Interneten.

Sariren bat irabazteko itxaropenik?

Ez dugu parte hartzen sari bat irabazteko, baizik eta ahalik eta abesbatzarik onena izateko. Sariren bat irabazten badugu oso pozik gertatuko ginateke, baina ez da helburu nagusia.

Mundu mailan zein dira abesbatza onenak dituzten herrialdeak? Letonia, Estonia... Ingalterak tr...

Ez dugu parte hartzen sari bat lortzeko, baizik eta ahalik eta talderik onena izateko.

dizio handia dauka. Azkenaldian Hego Amerikan ere talde onak daude. Espainian ere abesbatza onak badaudela badakit, baina ez ditut nahikoa ezagutzen iritzia eman ahal izateko.

Noren eragina duzue formazioan?

Eraginen konbinazioa dugu, eragin argi argi bat baino. Ingalterren eragina badugu, noski, tradizioz. Baina erreperitorioan musika australiar berria dugu eta gure estilo propioa dugu. Batzuetan Europaren eragina jasotzen dugu, Berlingo RIAS abesbatzarena adibidez. Abesbatza inglesetan adibidez, argitasun handiagoa dago soinuaren, soinu garbiagoa, dizdira handiagokoa soinu Australian baino.

Nola izan da bira?

Lehiaketarako eta zirkuiturako bakarrik etorri gara. Zuzenean 24 ordu hegazkinean eta jarraian beste sei ordu autobusean behar izan genituen. Sei kontzertu ditugu guztira biran. Bukatutakoan, exhera itzuliko gara. Seguraski oporrak izango ditugu, bakoitzak bere bizi-modua duelako. Nik adibidez 19 hilabeteko seme bat daukat eta zaindu behar dut.

Haur abesbatzen txanda izango da gaur, Lehiaketaren azken egunean

Musika » Gaztetxoak 11:00etan ariko dira, eta ahots nahasiak, 16:00etan polifoniam eta 19:00etan folklorean, Leidorren.

INIGO TERRADILLOS

Musika erlijiosoa eta profanoa izan zen atzokoan protagonista sei ahots talderen eskutik. Gaurko Abesbatza Lehiaketaren azken eguna izango da, eta gaztetxoek hartuko dute protagonismoa goizean. Bost abesbatza ariko dira, Leidor aretoan, 11:00etan. Arratsaldean, ahots nahasiaren txanda izango da. Lau abesbatza ariko dira Leidorren, 16:00etan, polifonia sailean, eta 19:00etan, folklore sailean.

Via-nova-chor

- **Jatorria.** Munich (Alemania).
- **Zuzendaria.** Florian Helgath.
- **Ahots nahasiak.** 20 emakume eta 20 gizon.
- **Historia.** 1972an sortu zuen Kurt Suttnerrek. 2008tik da zuzendari artistikoa Florian Helgath. Abesbatza musika garaikidea jorratzen dute batik bat, eta baita ohiko musika klasikoak ere. Abesbatzaren interesa eta nahiaren ideia ematen dute 40 estreinaldi inguruk.



Hungariako Discantus Vocal Ensemble, atzo, Santa Klara elizan. I. TERRADILLOS

Sydney Chamber Choir

- **Jatorria.** Sydney (Australia).
- **Zuzendaria.** Paul Stanhope.
- **Ahots nahasiak.** 12 emakume eta 12 gizon.
- **Historia.** 1975ean eratu zen, eta Australiako Bepizkundeko musikaren, eta batez ere, Josquin des Prezen errepertorioaren interpretatze osatuenetakoa bihurtzen da. Barrokoko maisu lanak indarberritzen aitzindaria da.

Singers Company

- **Jatorria.** Lakron (AEB).
- **Zuzendaria.** Samuel Gordon.
- **Ahots nahasiak.** 19 emakume eta 18 gizon.

- **Historia.** Samuel Gordonek osatu zuen taldea 2000. urtean, birtuosismotik eta musika konposizioaren estilo errespetutik ganbara abesbatzarentzako abesbatza lan handiak abesteko aukera izateko helburuz.

Yuuka Choir

- **Jatorria.** Tokio (Japon).
- **Zuzendaria.** Hiroki Fujii.
- **Ahots nahasiak.** 20 emakume eta 16 gizon.
- **Historia.** 1989an sortu zuen Hiroki Fujii abesbatza musikaren estilo berri bat sortzeko asmoz. Klasikoaren garaietatik musika garaikideraino lantzen du. Hainbat

sari lortuak dituzte, baita Tolosan ere, 1998an izan zirenean.

Cor Infantil St. Cugat

- **Jatorria.** San Cugat (Herrialde Katalanak).
- **Zuzendaria.** Elisenda Carrasco.
- **Haur abesbatza.** 40 neska.
- **Historia.** 1991ean eratu zen. Opera produkzio desberdinetan hartu dute parte, hainbat sari lortu dituzte eta bost disko ere grabatu dituzte: *Fantasia de Nadal* (1994), *La volta al mon amb les postres cançons* (1999), *Musica Religiosa* (2002), *Perfect songs* (2005) eta *Musica del siglo XX* (2009).

Ondrasek Czek Children's Choir

- **Jatorria.** Novy Jicin (Txekiar Errepublikan).
- **Zuzendaria.** Josef Zajicek.
- **Haur abesbatza.** 36 neska.
- **Historia.** Vaclav Ptacekek abesbatza sortzaileak aukeratu zuen 1967 taldearen izena, gazteria aske eta irekiaren sinonimo gisa. Ptacek irakasleari esker, abesbatza oso saritua eta errespetatua izan da. Lehen sari ugari lortu dituzte.

Primavera Children's Choir

- **Jatorria.** Brno (Txekiar Errepublikan).

- **Zuzendaria.** Katarina Maslejo-va.
- **Haur abesbatza.** 36 neska.
- **Historia.** 1992an eratu izan zen. Koruaren errepertorioa ezaugarrietako bat konposizio guztiak jatorrizko hizkuntzean interpretatzea da. Hiri guztiko talentudun gazteak biltzen ditu taldeak eta perfekzio teknikoan oinarritutako interpretazio moderno baterantz bilakatzen da eta adierazkortasun sinogarri batekin elkartzen du. Europan haur abesbatza kantuko ordezkari onenetako bat bezala ezagutuak izatera.

Riga Cathedral Girls Choir

- **Jatorria.** Riga (Letonia).
- **Zuzendaria.** Aira Birzina.
- **Haur abesbatza.** 30 neska.
- **Historia.** 1997an eratu izan zen. Abesbatza kantua gain, Musika-rena Teoria eta instrumentu desberdinak ikasten dituzte. Errepertorio zabala eta anitza dute: Letoniako abesti herrikoien moldaketetatik musika klasiko, erromantikoa eta garaikideraino.

Lacrymosa Children's Choir

- **Jatorria.** Chisinau (Moldavia).
- **Zuzendaria.** Angela Prisacaru.
- **Haur abesbatza.** 40 neska.
- **Historia.** 1996an eratu zen. Errepertorio zabala eta anitza dute: Berpizkundetik XXI. mendeko musikaraino, eta arreta berezia eskaintzen diote Moldaviako musikari. Hainbat grabaketa egin dituzte Moldaviako irrati eta telebista nazionalerako, eta hainbat lehen sari eta nagusi lortu dituzte.

Amodio amore



» Iritzia

Migel Zeberio
Koru zuzendaria

Koruen jarioa, ugaria da jada eskenatokian. Entzun ahala, berari buruz jasotako impresio laburrez baino ez dut osatuko ondorengo hitz laua. Bigarren saioan, kantarien adinak berebiziko baldin-

tza ezarri zuen. Norvegia eta Frantziako koruak, duintasunez baina maila diferentean aritu ziren.

Balantzak, Krog eta Musicanovaren txinpartaren alde egin zuen nabari. Esloveniarrak sarreratik erakutsi zuten konfidantza. Interpretazio posible askotarikoaren artean, Victoria eta Belloren pasarteak argitasunez landu zituzten, testuei garrantzi handia emanez, britaniar estiloan, esaterik badago. Folklorean, D. Azurzaren *Loriak Udan* kanta ezagunaren eritmo dantzariak, barrabaskeri ederrak egin zituzten, horretarako Europa Erdialdekoa izan behar.

Zein baino zein derragoak diren, TI Victorria, berpizkundeko konposagile bikainenetarikorearen obra sorta entzuteko aukera eskaintzen digu jaialdiak. Honen arira, Italiako proposamena ere sendoa zen. Imitazio eta kontrapuntu aberatsak josten trebe gidatu zuen Barchi maisuak. Berotasunez bideratu zuen une oro taldearen baliabide oparoa. Plastikoki eta tinbririkoki, armonioz atseginen iturria, pakea eta gozame-ña gortzen zuten. Hiru abestiz loturiko azken kapituluak jo eta potu utzi gintuen, amodio-amore topiko bezain amultsua inoiz buka ez zedin amestu araziz. Eta horrela joan ginen, goxoki lolo egitera.

Atzoko Ahots taldeen Musika Sakroari buruzko hitzok, horrela has-

teak, pena ematen dit, baina ezin izaketa dezaket Santa Klarako elizaxoa erdi bete ikusteak sortu zidan ondoeza. Aukera aukerako sei taldeek gehiago merezi zutela sinistua nengoan. Zeren akatsa ote?

Entzutekoak izan genituen, musikarekiko sei jarraera desberdin eta interesgarriak. Hungariatik etortakoek eskeinitakotik, Ch V Standford-en *Beati quorum via*-ren intimitasuna azpimarratuko nuke.

Holandar neska gazteen boskoteak: freskotasunetik asko eta esker-tzekoa eskaini zuten. Espiritual beltzen oihartzun sentsualenez jarri zioten goia beren jardunari.

Alemaniarren soinu tresna aparta, orekatua eta sail guztietan ongi ordezkaturia. Egitarauaren aldetik, planteamendu lehiakorrek.

Gneis berriz, hamasei lagunez osatutako talde oso gaztea da. Erraztasun handiz gainditu zituzten partituren alde teknikoak, esan nahi baita, eskola handikoak direla. Alde espiritualean aldez heldu ahala garatuko dute ziurrenik.

PVD ere hamasei lagunekin, abestiak leunki ehuntzen jardun zen. Lortutako oihal bakoitzean berri, harien arteko kiribuelte sortutako bide guztiak, batak bestearengandik bereizten zituzten maisuki. Gozamen!

Azkenik, britaniar laukotea aipatuko dut: goraberhasu, erregulartasunari dagokionean. Taverner en *The Lamb* bezelakoan lortu zuen emaitzarik bikaina.

Ez da atsendenik, hurrengo emaldia gainean baitut! Bihar arte.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Garajea.** Autokarabana gordetzeko garaje edo pabilioi baten bila nabil. Alokairuan. Interesatuek deitu 653 74 05 11 telefono zenbakira.

LANA

■ **Garbikuntza.** Bigi garbitasunak: alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inon-

go konpromisorik gabe, 638 94 46 04 (Gurutze) edota 695 70 82 71 (Belen) telefono zenbakietara.

SALGAI

■ **Su egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrora moztuta. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 615 75 57 62.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa).
Etxeak, Allirin eta San Frantziskon.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean, Iurren eta Batxilerr Zaldibian, erosteko aukerarekin.
Salgai (Tolosa). Etxebizitzak. Kale Nagusian, Araba etorbidean, Batxilerr Zaldibian.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Larramendin, igogailuarekin. Eraikuntza berria. Aukera ona.
Salgai (Legorreta eta Iruia). Etxebizitza eraberritzeko, Legorretan 32.000.000 pztia eta Iruian 20.000.000 pztia.
Salgai (Iruia). Etxebizitza sartzeko moduan. Eskaintza ona.
Salgai. Garaje ibiak eta irekiak. Amartzen (Tolosa) eta Iburan.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Azaroan, argazki lehiaketa, merkatu txikia eta gehiago, Oargin

Tolosa » Elkartea Mendi Hamabostaldia antolatzen ari da jada; ekitaldien artean, mendiko materialen azoka izango da.

ERREDAKZIOA

Oargi mendi elkarrean azaroan ospatuko den Mendi Hamabostaldia prestatzen hasiak dira dagoeneko. Azaroaren 29an emango diote hasiera eta abenduan zehar ere izango da. Ekitaldien artean, material berri eta bigarren eskuko merkatu txikia izango da.

Merkatu txikiak azaroaren 29an irekiko ditu ateak. Hala, las-ter hasiko dira ordurako materiala biltzen. Azaroaren 16an hasiko

dira material biketarekin. Interesatuek astean zehar, 19:00etatik aurrera eraman dezakete elkar-tera. Honez gain, 688 69 86 42 telefono zenbakira deituta egin dezake- te.

Merkatu txikiak gain beste hain- batekitaldi ere izango dira azaroko hamabostaldian. Esaterako, Chis- tian Ravier etorriko da hitzaldi bat ematera. Baita, Manu Cordoba, Alex Txikon eta Antxon Zabala ere.

Argazki lehiaketa eta Boulder Txapelketa herrikoia

Hamabostaldian era guztietako jarduerak izango dira. Horieta- ko bat izango da, argazki lehiaketa. Mendia eta natura izango da argazkietan islatu beharreko gaia.

Parte-hartzaileek azaroaren 24a baino lehen aurkeztu beharko di- tuzte argazkiak, Foto Karlis den- dan.

Lehiaketako irabazleak argazki kamera digital bat eramango du etxera. Bigarren eta hirugarren ge- ratzen direnek berriz, mendiko materiala. Bestalde, sari berezi bat egongo da erretratu original eta ateratzen duenarentzat.

Laugarren aldiz, Boulder Txapelketa herrikoia jokatu- ko da azaroaren 28an. 15:00etan hasiko da norgehiagoka, eta lau talde- tan banatuta lehiatuko dira parte- hartzaileak: haur, gazte, heldu eta emakumeetan. Oargiren webgu- nean eman daiteke txapelketarako izena, baita 688 69 86 42 telefono zenbakian ere.



Victor Peñas etorri zen uraren inguruan mintzatzeko. HITZA

Uraren gaia landuz hasi dira Eskola Agenda 21ekin

Ingurumena » Ikasturtea hasi besterik egin ez badute ere, hainbat ikasle eta irakasle igaro dira Ingurumen Eskolatik.

ERREDAKZIOA

Duela hilabete eta erdi inguru hasi zen ikasturtea, eta ordutik Tolosa- ko eta Tolosaldeko hainbat herrie- tako eskolak Eskola Agenda 21 programarekin jo eta ke ari dira lan- ean. Aurten aukeratu duten gaia ura izan da. Baliabide honen inguru- an dauden arazoak, horniketa, herri batzuen beharra, ibaien ego- era... aritu dira aztertzen.

Irailtik hona irakasle ordezka- riek bi koordinazio bilera izan di- tuzte, CEIDAK emandako ikasta- roan parte hartu dute eta joan den asteazkenean, hilaren 28an, Tolosako Ingurumen Zentroak

(TIZek) antolatutako Victor Pe- ñas, Uraren Euskal Agentziaren teknikariaren hitzaldia entzuteko aukera izan zuten.

Hitzaldia Anoetako udaletxean egin zuten eta bertan 40 lagun in- guru elkartu ziren. Gehienak irak- sasleak baziren ere udal teknika- riak eta gurasoren bat ere egon zen, baita Tolosako Paper Eskola- ko ikasle talde txiki bat ere. Ondo- ren ibaira hurbildu ziren. Anoeta eta Irura herrien arteko Oriabaia- ren bazterreari begira jarrita Peña- sen gidapean bertan gertatzen ari diren hainbat komentario entzu- teko.

Hala ere, oraindik ekintza asko dituzte gauzatzeko, gai honetan sakontzeko. Dena den, «inguru- men eskolakoek adierazi dute parte hartzen ari diren agenteak bene- tan inplikatzeko ari direla, «busti egiten dira, hobeto esanda», eta hasi besterik ez dira egin.



Bigarren eskuko mendiko materiala nahiz berria erosi ahal izango da Oargi elkarrean egingo den merkatu txikian. E.E.

Nahigabeen laguntzeko taldea

Tolosa » «Maite dugun norbait galtzeak eragindako minari aurre egiten laguntzeko» dolu taldea sortu da.

ERREDAKZIOA

Santa Maria parrokiari, dolu taldea izeneko ekimen bat sortu da. «Nahigabezko egoeretan, talde- ren laguntza emozionala nahi du- ten pertsoneri» zuzenduta dago

egitasmo hau. Alberto Armenda- riz Psikologo Kolegiatuak gidatu- ko du taldea.

Maite dugun norbait galtzeak nahigabe handiz betetzen du edo- nor, eta jendearen izate eta bizitza osoan du eragina galera horrek. Hori dela eta, honen aurrean, gai horretaz norbaitek hitz egitea osasungarria dela uste dute Santa Maria parrokiako kide eta ardura- dunek. Hala, dolu aldia senda aldia bezalakoa izan daitekeela deritzo- te eta gaineratzen dute, askotan ez

dela erraza gertatzen horretaz ongi jabetzea. Dolu taldea deritzo nahigabezko egoera horietan elka- rri lagun egiteko sortzen den talde- ari, eta egokiera eskaintzen du dolu aldiari nahigabezko egoera lantzeko.

Tolosan sortu berri den dolu tal- de honetan parte hartu nahi dutenek Santa Maria Parrokiako- ekin jarri beharko dute harreman- etan datozten egunetan. Horretar- ako telefono zenbakia hau da: 943 671034.

Laburrak

Hildako guztien alde, etzi meza ospatuko da hilerrian

TOLOSA » Hildako guztien alde meza ospatuko da etzi, kanposan- tuan. 11:00etan hasiko da elizkizu- na eta San Blas auzoan dagoen hi- lerrian izango da.

Azaroko zine bonoak erosteko aukera, bihar

TOLOSA » Bihar, 17:00etatik aurrera erosi ahal izango dira zinemarako azaroko bonoak. Leidor antzokiko leihatilan eskuratu ahal izango dira oraingo honetan ere.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

Gaur, 16:00etako **Abesbatzen emanaldirako:**
◦ Juan Antonio Iraeta (Ikaztegieta)

Gaur, 19:00etako **Abesbatzen emanaldirako:**
◦ Ines Berasategi (Tolosa)



sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

41. ABESBATZA LEHIAKETA



TXOKOA HITZA

Bengoetxea VI.ak Martinez Irujo gainditu beharko du final-laurdenetan

Leitza » Lau t'erdiko Txapelketako bigarren partida da leitzararentzat; bihar ariko dira Eibarko Astelena pilotalekuan.



Oinatz Bengoetxea finalerdietarako txartela lortzen saiatuko da bihar. HITZA

ERREDAKZIOA

Finalerako bidean bigarren pausua emateko unea heldu da Oinatz Bengoetxearentzat. Estropozurik ez egitea zaila izango da, ordea, aurrez aurre Buruz buruko eta Binakako txapeliduna izango baitu Leitzakoak, Martinez Irujo, hain zuzen ere.

Partida bihar izango da Eibarko Astelena pilotalekuan, 17:00etan hasiko den jaialdian. Aurretik, Berasaluze IX-Eulate Aritz Lasa-Beroizen aurka ariko dira.

Herenegun aukeratu zituzten partidarako pilotak bi nafarrek. Irujorenak (106,2 eta 160,8 gramo) zen Bengoetxea VI.arenak (106,3 eta 105,8) pilotak antzekoak dira, bizixeagoak agian Bengoetxearenak.

«Partida on bat aurreikusten dut»

Oinatz Bengoetxeak «ahalik eta lasaie» jokatzeko saiatuko dela adierazi zuen pilota aukeraketaren ondoren. «Hala ere, irabazi egin nahi dute eta horrek presioa ere jartzen du», aitortu zuen. Hala, berak «bion arteko partida ona» aurreikusi zuen.

Martinez Irujok, bere aldetik, leitzararen jokoa goraiatu zuen: «Ia perfektu jolastu beharko dut irabazi nahibadut, Oinatz oso pilotari gogorra da; ez nuen nahi bere aurka jokatzetik baina horrela tokatu da eta irabazten saiatuko naiz».

Hainbat datu

Lau t'erdiko Txapelketan behin bakarrik aritu dira bi pilotariak elkarren aurka. 2004. urtean izan zen. Eszenatokia berdina izan zen, Astelena, baina egoera oso desberdina. Bengoetxeak 20 urte baino ez zituen. Hasiera ona izan zuen baina azkenean ezin izan zuen Iberokoarekin. Oraingoan ere Martinez Irujo aterako da kantxara favorito bezala.

Pilotalekuak berak ere kezkatzen ditu pilotariak, ez baitago oso egoera onean. «Aurreko astean

baino itxura hobeagoa du, baina pilotak lurtean bote arraroak egiten» dituela kexatu zen Irujo bera. «Ikusiko dugu oraingoan».

Final-zortzirenetako partida, zaila

Oinatz Bengoetxeak, Aritz Lasaren aurka Labriten jokatu zuen pasa den larunbatean bere lehen partida Lau t'erdiko Txapelketan, final-zortzirenetan ziren eta 22-19 irabazi zuen.

Partida oso bizia eta borrokatua izan zen. Lasak benetan estu hartu zuen leitzarra. Oso pilota biziak erabili zituzten, sei eta zazpi kuadrainoko boteak egiten baitzituzten eta Lau t'erdiko pilota partidetan hori ez da oso ohikoa. Lasa urretxuarrak, lotsagabe jokatu zuen eta dena ongi ateratzea zaila bada ere, partida polita jokatu zuen.

Partida ugari jokatuko dituzte Aurrerakoek asteburuan

Leitza » Nafarroako Kluben arteko Txapelketan Emakumezkoen Paleta Goman eta Nafar Jokoetan ariko dira pilotariak.

ERREDAKZIOA

Astebururo bezala, Aurrera elkarreko pilotariak ez dute atsedunik izango eta kartelera osatua izango dute bi egunetan. Txapelketa ezberdinetan murgildurik daude. Atzo jokatu zituzten partida batzuk eta bihar ere izango dute partida bat. Hain zuzen ere, Nafarroako Kluben Arteko Txapelketan Jaunarena Labrit pilotalekuan ariko da 22 urte azpikoetan Madariagaren aurka, 11:30etik aurrera izango da ikusgai.

Hala ere, partidarik gehientsuenak gaur bertan jokatuko dituzte.

Nagusien kasuan, Nafarroako Kluben Arteko Txapelketan, emakumezkoen paleta goman Diaz-Larion ariko dira Leitzako Amazabal pilotalekuan Iera Agirre-Saioa Aristorenaren aurka, 10:00etatik aurrera.

Nafaro Jokoetan, berriz, Amazabalen izango dira hainbat partida, 10:00etatik aurrera. Benjaminean, Aurrerako Nahia Eskudero-Mattin Sukuntza Zugarralde taldearen aurka ariko dira; ondoren, infantiletan, Mikel Sagastibelza-Lenitz Galartza ariko dira Zugarralderen aurka. Kadeteetan, Xabier Eraso eta Ibai Barberena

Iñigo Mitxaus-Ibai Gilen aurka ariko dira, bi bikoteak Aurrerakoak direlarik.

Etiket kanpokoak

Etiket kanpo ere ariko dira bihar. Iruñeko Oberena pilotalekuan 10:00etatik hasita hiru partida izango dira. Benjaminean, Hego Txoperena eta Oier Goikoetxea ariko dira Oberenaren aurka. Albebinetan, Joanes Illarregi eta Beñat Billabona Oberenaren aurka ariko dira. Eta azkenik infantiletan, Ander Eskudero eta Xabi Zubiria pilotariak jokatuko dute Oberenaren aurka.

Atarrabian Julen Goikoetxea eta Iñaki Saralegi infantilek Beti Onak taldearen aurka ariko dira, 10:00etatik aurrera.

Iruztunen ere benjaminean txanda izango da. Koldo Hernandorena eta Mikel Zabaleta pilotari gazteak ariko dira, beraz, Iruztun taldekoen aurka. Hauek ere 10:00etatik aurrera.

Lizarran ere beste benjamin batzuk jokatuko dute. Joseba Eskudero eta Mikel Zabaleta, hain zuzen ere. Aurrez aurre Lizarra A izango dute.

Burlatoko Txapelketa

Burlatoko Txapelketan ere ari dira Aurrerako pilotariak, infantil eta kadeteen mailan, hain zuzen ere. Hauek gaur 16:00etatik aurrera jokatuko dute Burlatan bertan. Infantilak, Garziarena eta Barberena dira eta kadeteetan Aldaregia eta Hernandorena.




SARIDUNAK

1 Gazta

Larte gaztegiaren eskutik, ardi latxaren esne gordinez egindako gazta koipetsu bat eta gazta zahar krema ontzi bat

Ameri-Ondo Etxea • **BERASTEGI**
tel.: 678 917 378


• Aloña Usandizaga (Iruera)



Larte

3 Haur literatur liburu sorta

Ibaizabal argitaletxearen eskutik, 4 haur literatur liburu osaturiko sorta



• Juan Ignacio Elosegui (Berastegi)

2 6 disko

Gaztelupeko Hotsak disketxearen eskutik, Bide Ertzean taldearen **Leidor Sessions** CD-DVD berrira

- Mapi Ugalde (Villabona)
- Lorentzo Goikoetxeaundia (Lizartza)
- Nekane Jauregi (Tolosa)
- Onintza Garaikoetxea (Ibarra)
- Olatz Olaetxe (Tolosa)
- Milagros Iztueta (Aitzo)



4 JM Beltran eta Kukai Kontzertuan

Emanaldia Urtarrilera atzeratu da

- Joxe Antonio Artola (Tolosa)
- Miren Intxaurren (Leitza)



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.



I. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketaren kartela. HITZA

Udalak I. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketa antolatu du

Villabona » Euskarazko bakarrizketa alorra sustatu eta Euskal Herrian zehar aurkezteko lan multzoa egitea dute helburu.

E. MAIZ

Villabonako Udalak, I. Euskarazko Bakarrizketa lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honen helburua, euskarazko bakarrizketa alorra sustatzea eta Euskal Herri osoan zehar aurkeztu ahal izango den lan-multzoa bat osatzea da.

Aurkezten diren bakarrizketa guztiak, euskaraz interpretatu beharko dira eta gaia libre izango da. Bakarrizketa, antzezleak berak idatzia edota beste egile batek egin izan daiteke; baina testuaren egilea, antzezlea ez bada, egilearen izena eta originala den ala ez zehaztu beharko dira. Bestalde, 10-15 minutu arteko iraupena izan beharko du.

Izen-ematea doan izango da eta azken eguna, abenduaren 21ean izango da. Bakarrizketa guztiak, urtarrilaren 15etik otsailaren 19a bitartean aurkeztu beharko dira Amasa-Villabonako Gurea zine aretoan. Ostiraletan egin ahal izango izango da aurkezteko aukera. Antolatzaileek, beraiek izendatuko

dute epai-mahaia eta hauen erabakiak mugiezina izango dira. Epai-lek, jendaurreko aurkezpenaren arabera egingo dute balorazioa. Egile eskubideak, egilearenak izango dira. Eta azkenik, saritu eta parte-hartzaileen izenak, www.villabona.net, udaleko web orriaren argitaratuko dituzte.

Zer egin parte hartzeko

Izena, bakarrizketak@gmail.com helbidean eman beharko da. Eta bakarrizketa egileek, honako datu hauek eman beharko dituzte: izen-deiturak, harremanetarako telefonoa nahiz helbide elektronikoa, bakarrizketaren izenburua eta gutxi gorabehera izango duen iraupena ere zehaztu beharko dira.

I. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketan parte hartzen duten guztiak, lehiaketaren amaieran egingo den afarirako gonbidapena izango dute. Lehen bakarrizketa lehiaketa honetan sariak izango dira; irabazlearentzat 800 euro, bigarrenari 450 euro eta bakarrizketa originalena egiten duenari, 250 euroko saria emango diote.

Zalantzaren bat izanez gero edota informazio gehiago eskuratzeko, bakarrizketak@gmail.com helbide elektronikora idatzi edo 653 711274 telefono zenbakira deituz eskura daiteke.

Laburrak

17 urtez azpiko txapelketa Danenakoek Valentzian

VILLABONA » Gaur, hilak 31, Espainako 17 urtez azpiko txapelketa ospatuko da Valentzian eta bertan, Danena Taldekoak diren pulsulariek parte hartuko dute. Adrian Sasiain, Asier Gallego, Alain Moleda, Aritz Erez eta Julen Guerrero izango dira. Egun berean, baina Zarautzen, Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa ospatuko da eta Danena Taldeak ere bertan parte hartuko du.

Kanposantura joateko autobus zerbitzu berezia

TOLOSA » Igande honetan, hau da, azaroaren lehen, Santu Guztien Eguna izaki, hiribusa edo Tolosako urbanoaren zerbitzu berezia jarriko dute kanposantura. Gaur ohiko zerbitzua egingo du hiribusak, San Blas ermitan geltokia duelarik. Azaroaren lehen, berri, 09:00etan Santa Klarako geltokian hasita, 45 minutu autobus egongo da kanposantura joateko. Goizean 12:45ean izango da azken autobusa, eta arratsaldean 15:00etan hasita, 18:00ak arte izango da zerbitzua. Santa Klara, Foruen Etorbidea, geltokia, lurreamendiko biribilgunea, lurre, Paper Eskola, Amaroitz, kanposantua, Iparragirre, Bizkaia kalea eta Santa Klara izango da autobusak egingo duen ibilbidea.

Azaroaren 5a azken eguna argazkiak aurkezteko

ANOETA » Argazki lehiaketa antolatuta 2010eko egutegia osatzeko. Bertan, Anoetan errolatuta daudenek parte hartu ahal izango dute, bakarka naiz taldean. Argazkiak, 13 x 18koak izan beharko dute eta paperean errealatuta aurkeztu beharko dira. Gutunazalean, izenburu bat jarrita, udaletxean edo kiroldegian utzi beharko dituzte parte hartu nahi duenak. Aurten gaia, kirola izan da. Udalak, 8 argazki sarituko ditu, eta hauek izango dira sariak: 50 euro argazki bakoitzen egileari (pertsonek edo taldeak) eta argazkiak 2010eko udal egutegia osatzeko erabiliko dituzte. Argazkiak aurkezteko azken eguna azaroaren 5a izango da.

Azaroko irteera Etxalargo usategietara

Ibarra » 'Geurea Ikurriña' lelopean ibilaldi erraza antolatu dute Etxalar eta Zugarramurdi inguruak ezagutzeko asmoarekin.

E. MAIZ

Azarorako mendi irteera antolatu dute *Geurea Ikurriña* lelopean. Antolatzaileak, Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju Mendi Taldeak izan dira. Azaroak 8, igandea, mendi irteera ederra egiteko aukera izango da.

Kasu honetan, Etxalargo usategiak ezagutuko dituzte. Etxalargo eta Zugarramurdiko bailarak ikusiz, pagadi itzelen udazkeneko kolore biziez gozatuz, Etxebertzeko bordatik igaro eta Infernuko Errota ezagutzeko parada izango dute. Errota hau Franko diktadorearen garaian martxan mantendu zen bakanetakoa izan zen, izan ere,

«amets gaiztoetako giza-seme honen erroten erabilpena debekatu zuten».

Irrifar bat ahoan

Oso ibilaldi erraza da, 5 ordu ingurukoa eta laua, hala ere, haurrekin joan nahi duenak, 2 ordu eta erdiko ibilaldia egin dezake, beraz ez dago atzera botatzeko aitzakiarik. Nola ez, egun pasa honi amaiera bikaina emateko, behin ibilaldia amaiturik, mokadu ederra egingo dute 10 euroen truke. Kasu honetan, eta meriendatxo egin nahi duenak, apuntatu egin beharko du, eta horretarako 3 aukera daude: Sendi Ekintza tabernan, Denak Tabernan edo 691 563204 (Xabier) telefonoz zenbakira deituz.

Ibarrako plazan, 08:00etan elkartuko dira abiatzeko. Izena emateko azken eguna azaroaren 4a izango da. Antolatzaileen esanetan, eraman beharrekoa, «irrifar batahoan» baino ez da.

Azaroaren 16tik aurrera KZgunera sartzeko sistema berria martxan

Anoeta » Ez duenak Ona txartela egin beharko du eta dutenek tutoreari eraman beharko diote prestatzen joateko.

E. MAIZ

Orain arte ordutegi mugatua izan du Anoetako KZgunek, baina laster hori aldatu egingo da. Proiektu pilotoa izango da epe laburrean martxan jarriko dena. Sartzeko sistema berriaren bidez, herritarrek nahi duten ordutegian erabili ahal izango dute KZ gunea, sarrera automatikoa izango baitu Ona txartelarekin.

Horretarako, Ona txartela tutoreari eraman behar zaio, hauek prestatzen joan daitezten.

Momentuz, eta erabiltzaileek beren Ona txartela konfiguratu arte, KZ gunea zabalik egongo da ohiko ordutegian, astearte, asteazken eta ostegunetan, 11:00etatik 13:00etara eta ostiraletan 16:00etatik 20:00etara.

Lehen herria

Azaroaren 16tik aurrera, erabiltzaile bakoitzak, bere Ona txartelarekin sartu beharko du. Horregatik, Udalak herritarrei dei egiten die beraien txartelak lehen bailehen prestatu ditzaten. Txartelarik ez dutenek, eskatu egin beharko dute eta horretarako nortasun agiria eta osakidetzako txartela beharko dituzte.

Anoeta proiektu hau martxan jartzen duen Gipuzkoako lehen udalherria izango da.

Urteurrena

URTZARRA ELIZONDO

(1995-06-20 / 2008-10-31)

Izaten dira zenbait gauza, Inoiz aldatzen ez direnak.

Pasa da urte osoa, Zure presentzia gozoa, geroztik segunduan mila aldiz, Ahots xamurraren egarri, erantzuna presente dugu berriz. Zein ote da horren gosena? URTZ, zuri muxu goxoanek

Txamurtza Etxea



OIARTZUNEN
2009ko
urriaren 31

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Jaialdi bereziaren aurkezpena egin zuten eta bertan izan ziren Zeberio eta Altuna, eskuinean makurtuta. JOSEBA ZABALZA

Erremonte profesionalaren 100. urteurrenean, jaialdi berezia

Pilota » Egun dauden erremonte jokalarri onenak ariko dira jaialdian, tartean Patxi Zeberio eta Garikoitz Altuna.

ERREDAKZIOA

Azaroaren 15ean erremonte jaialdi berezia egingo dute Uharteko (Nafarroa) Euskal Jai Berri frontoian. Bai frontoi hori inauguratu zela bai erremonte profesionala

hasi zela 100 urte betetzen dira eta horregatik egun dauden erremonte jokalarri onenak bilduko dira jaialdi horretan. Tartean eskualdeko Patxi Zeberio elduindarra eta Garikoitz Altuna amezketarra ariko dira.

Jaialdia 16:30ean hasiko da eta hiru partida izango dira. Partida nagusienean, bigarren izango dena, Ezkurra-San Miguel eta Zeberio II.a-Urrutia bikoteak lehiatuko dira. Antolatzaileen esanetan egun antolatu daitekeen erremonte

partida onena da. Bigarren partidan nagusienean, hirugarrena jaialdian, Urrutia-Lizaso eta Altuna II.a-Etxeberria III.a bikoteen artekoa izango da. Beste partida, jaialdiko lehenengoa, Endika-Balezte-na eta Urtaşun-Olazar bikoteek jokatuko dute.

Aipatzekoa da orain 100 urteko gogorazaziko dituzten arropak jantziko dituztela jokalariek, hau da, manga luzeko eta marra horizontaleko elastikoak eramango dituzte.

Mus txapelketarekin emango diete hasiera gaurko ekitaldiei

Bedaio » Mus txapelketaz gain, landa eramuko emakumei buruzko bideoa eta gaztain jatea izango dituzte.

ERREDAKZIOA

Bedaio Artubi elkartearen zenbait ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute gaur. 16:00etan mus txapelketa izango da. Horren on-

doren, Tolosako Udalak, Berdintasun departamentutik prestatu duen ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izango da. Azkenik, danbolinarekin txinparten doinuekin 21:00etan gaztain afaria antolatu dute.

Landa eramuko emakumei buruzko ikus-entzunezkoari dagokionez, Bedaio aurkeztu zen urriaren 15ean landa eramuko emakumeen eguna zela aprobetxatuz. Bertara joan ziren lan ho-

rretan parte hartu duten Aldaba, Bedaio eta Urkizuko emakumeak eta baita ere Tolosako auzoetako zinegotzia den Olatz Peon, Berdintasuneko zinegotzia den Onintza Lasa, Berdintasun departamentuko teknikaria den Josebe Iturrioz eta Tolomendiko teknikaria den Arrate Iturbe.

Ikus-entzunezko lan horren helburua, landa inguruan bizi diren emakumezkoen ahotsa hirira zabaltzea izan da.

Laburrak

Mendi martxa egingo dute bihar AHTren aurkakoek

AHT • Ikaztegiaren hasi eta Alegian bukatuko den mendi martxa antolatuko du AHT Gelditu! Elkarlanak biharko. Tolosako Ugane auzotik Alegiara bitartean aurreikusita dagoen AHTren ibilbidea egingo dute, «kaltetuetako lekuak» ikusiz. 10:30ean abiatuko dira Ikaztegiaren tren geltokitik eta bazkaltzeko 13:30ean geldituko dira Langaurren, ondoren Alegiara jaisteko. Alegiako plazan egun guztian zehar AHTren aurkako erakusketari informatiboa jarriko dute.

Txintzarri Egunerako bazkari txartelak salgai

ALEGIA • Urtero legez, Txintzarri Abesbatza Kultur Elkartek Txintzarri eguna ospatuko du azaroaren 15ean. Egun horretan Txintzarri Txiki eta Txintzarri abesbatzek kontzertua eskainiko dute eta bazkaria egingo da Txintzarri jatetxean. Bazkarirako txartelak salgai daude azaroaren 9era arte, 35 eurotan, honako toki hauetan: Kafe Letamendia, Landa, Jubilatuen taberna, Arruenea eta Kurpil.

Lor eta Sei urte taldeen kontzertua Gaztetxean

ANOETA • Txolarre Irratiak eta Anoetako Gazte Asanbladak kontzertua antolatu dute gaurko Anoetako Gaztetxean. Aste Internazionalaren baitan izango da ekimena eta herrien arteko elkartzasuna bultzatzeaz batera, Anoetako Edurka pabiloian biltzen diren eragileen arteko elkarlanaren isla izan nahiko luke. Lor eta Sei urte taldeak gonbidatuko dituzte horretarako eta 23:00etatik aurrera ariko dira.

1959an jaiotakoek bazkaria antolatu dute

TOLOSA • 1959an jaiotakoek bazkaria antolatu dute Fronton jatetxean azaroaren 7an. Bazkariak 55 euro balio ditu eta azaroaren 3a baino lehen diru kopuru hori sartu behar da ondorengo kontu korrontean: 21010067280012444782. Informazio gehiago nahi duenak 670208103 (Maritxu) eta 665713799 (Kristina) telefono zenbakietara dei dezake.

Babarrun Kofradiak Alegiko produktoreak omenduko ditu

ERREDAKZIOA

Tolosako Babarrunaren Kofradiak omenaldia egingo die bihar Alegiko babarrun produktoreei. 13:00etan egingo dute omenaldia Alegiako udaletxean. Aurretik, 12:00etan, urteko batzarra egingo dute udaletxean bertan kofradiakoek. Omenaldian Alegiako Udalarri diploma bat emango diote kofradiakoek, babarrunaren ekizipena mantentzearen errekonozimendu bezala. Urtero egiten dute omenaldia herriz-herriz eta aurtengoa Alegia aukeratu dute.

Udaletxean omenaldia egin eta gero bazkaria egingo dute eta, noski, babarrunak jango dituzte. Txintzarri jatetxean bilduko dira kofradiakoak, Udaleko ordezkariak eta herriko babarrun produktoreak. Txintzarri jatetxearek ere diploma bat banatuko diote kofradiakoek, bertan astero babarrunak jateko aukera ematen dutelako.

Mendiko GPS ikastaroa antolatu dute datorren hilerako

ERREDAKZIOA

Berastegiko Udalak eta Aldin, Basurde zein Urepele elkarteek mendian ibiltzeko GPS ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa azaroaren 16, 18, 20 eta 21ean izango da KZgunean. Aste egunetan zati teorikoan izango dute (21:00-22:30) eta larunbatean, aldiz, zati praktikoa garrantzuko dute (09:00-12:00).

Azaroaren 10era arte eman daitezke izena 20 euro ordainduta. Taldean gehienez 15 pertsonak hartu ahal dute parte, eta ondorioz, gehiagok ematen badu izena zozketa egingo dute.

Informazio gehiagorako 635700027 (Miel) telefono zenbakira deitzeko eskatu dute.

**90 URTE BERRITZEN.
90 EGUN PREZIO HISTORIKOekin.**

APROBETXATU EZAZU UNE HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Artiriko orotarako aseguru zura Citroen berria, errekaratu eta interesik gabeko eta langabezi estaldura opari

GOZATU BAITA ERE C4, C4 PICASSO ETA C5 MILLENNIUM EREDUEN SERIE BEREZIAN. MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.

CITROËN preferre TOTAL

CITROËN C3 **7.300€**etik

CITROËN C4 HDi **11.600€**etik

CITROËN XSARA PICASSO HDi **12.800€**etik

www.citroen.es

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA



22°
14°

GOIZA ESTALIA
ARRATS. ESTALIA
BEROENA 20°
HOTZENA 14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Altzo.** Bertso afaria Elordin 20:00ean Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidirekin.
- **Orexa.** Kultur Hamabostaldia: puzgarriak umeentzat 16:30ean, ondoren merienda banatuko diete eta 22:30ean Ate joka antzerkia.
- **Tolosa.** Udalaren harrera ofiziala abesbatzen zuzendari eta Lehiaketako pertsonalitateei udaletxean 22:00etan eta abesbatza dantzaldia eta epaimahaiaren erabakia Beotibar pilotalekuan 23:00etatik 02:00etara.

Azoka

- **Tolosa.** Tolosa Goxua azoka bezeria Triangulon goiz osoan zehar.

Zinema

- **Villabona.** *Vicky bikingoa* filma euskaraz eskainiko dute Gurea zinemari 17:00etan eta *Los sustitutos* filma gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta astelehenean (ikuslearen eguna) 21:30ean.

Musika

- **Anoeta.** Aste Internazionalistan Lor eta Sei urte taldeak 23:00etatik aurrera Gaztetxean.
- **Tolosa.** Kerobia taldearen emaldia Bonberenean 22:30ean.
- **Tolosa.** Tolosa kantari Tonto kaltetik 12:00etan abiatuta, Alde Zaharreko kaleetan zehar.
- **Tolosa.** Abesbatza Lehiaketa: Txekiako Ondrasek eta Primavera, Moldaviako Lacrymosa, Kataluniako San Cugat eta Letoniako Riga Cathedral haur abesbatzen saioa Leidor aretoan 11:00etan. Alemaniako Via Nova München, AEBetako Singers Companye, Japoniako Yuuka eta Australiako Sidney abesbatzen saioak Leidor aretoan: 16:00etan polifoniar eta 19:00etan folklorean.

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



San Bartolome parkea prest

IBARRA ■ Bi astez aritu dira San Bartolome haur parkea eraberritzen. Udala hilaren 9an hasi zen lanekin eta dagoeneko erabili daiteke. 58.620 euroko aurrekontua duten lanak egin dituzte; besteak beste, altzariak aldatu dituzte eta «zoria erabiltzaileak erortzerakoan

mina hartu ez dezaten» moldatu dute. Lan hauen helburuak «esparruko baldintzak hobetzea eta bertan lastu ohi diren haurren segurtasuna bermatzea» direla argitu dute Udaletik. Orain ikusiko da aldatetako emaitza onak ematen dituzten. **REBEKA CALVO**

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

» IRRATIA

Txolarre irratia

- 10:45-11:00. Elhuyar Fundazioaren Quark saioa. **11:00-13:30.** Tolosaldeko Ahotza: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak. **13:30-14:00.** Albistegia - Info 7. **14:00-15:00.** Tolosaldeko Albistegia. **17:00-17:45.** Musika nobedadeak. **17:45-18:00.** Elhuyar Fundazioa Quark saioa. **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotza (errepikapena). **20:00-20:30.** Albistegia, Info 7.

» TELEBISTA

28 kanala

- 08:30.** Ur eta lur **09:00.** Alex eta Alexis
09:30. Tolosaldean Gaur **10:00.** 28 klp
10:30. Ilunpean **11:00.** Lamien artean
11:30. Tolosaldean Gaur **12:00.** Perretxikoak **12:30.** Zahar berri **13:00.** Nonochan **13:30.** Tolosaldean gaur **14:00.** Kale kanto **14:30.** On ein! **15:00.** Sakonduz **15:30.** Tolosaldean Gaur **16:00.** Ikusmira 3. *(12:30etik 16:30era bitarteko blokea lau orduro errepikatuko da).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 2. alea

200 ERREZETA
PRIMARRAK
OSATZAK
ERREZETAK

200 ERREZETA
PRIMARRAK
OSATZAK
ERREZETAK

berriaren
harpidedun eta irakurleek
erdi prezioan **12€**

Bete ezazu **urriaren 18tik 31 bitartean** BERRIAN argitaratuko den **erreserba kupoia** eta utzi zure kioskoan **azaroaren 8a** baino lehen.

BI ASTEREN BURLUAN KIOSKO BEREAN JASOKO DUZU LIBURUA.

Laguntzailea: **FAGOR**

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

mantangori rekin

Zinema etxean 4

6 DVD euskaraz

Larunbat honetan

Gipuzkoan eta Nafarroan

Heidi 3

Harpidedunentzat, **BILDUMA OSOKO 26 €** EUSKARIA EGITEKO 943 30 43 45, harpidetza@berria.info edo www.berria.info

Babeslea: **EUSKO JAURRALITZA**

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**